



## **BEZEROEKIKO HARREMANA**

Gure bezeroekiko erlazioa gertukoa eta familiakoa izango da. Leku garbi eta lasaigarri batean lana egiteko aukera izango dute, lagunekin edo familiarekin denbora atsegin bat izateko aukerarekin batera.

Bezeroekin komunikatzeko, ondorengo baliabideak erabiliko ditugu:

- Mezu elektronikoa bat dugu, non baliabide horren bitartez, gure instalazioetan egon den edozein promozio edota aldaketa transmitituko zaie.
- Web orri bat ere badugu, eta ondorengo atalak azalduko dira; edariaren gutuna, nor garen, kokapena, lan egin gurekin, jarri gurekin harremanetan. Web orriaren bidez, jendeak gure enpresa ezagutzea eta gure kafetegira etortzea nahi dugu.
- Instagrameko sare sozialean ere kontu bat izango dugu, non erabiltzaileek argitalpenak eta istorioak ikusi ahal izango dituzten. Bertan, gure lokalaren argitalpenak eta bezeroak gure kafetegian nola gozaten duten agertuko da.
- Komunikabideei buruz, aplikazioaren berritasuna izango dugula aipatu behar da. Bertan, kafetegiaren edukiera ikusi ahal izango dute, baita lekuak garbi eta erabiltzeko prest dauden ere.

Gure bezeroei kalitaterik eta gogobetetasunik handiena emateko, konpromiso irmoa dugu. Badakigu gure produktuen kalitatea funtsezkoa dela gure bezeroen konfiantza lortzeko eta gure kafetegira egiten dugun bisita bakoitza gogobetetasun une bihur dadin. Gure bezeroek konfiantzazko kafetegi gisa ikus gaitzaten nahi dugu, bertara joaten diren bakoitzean bilatzen duten fidagarritasuna, gogobetetasuna eta lasaitasuna aurkitzeko. Euren bigarren etxea bezala deskriba gaitzaten nahi dugu, bertan kafe kikara bat hartuz lasaitzeko eta eroso lan egiteko aukera izan dezaten. Gure kafetegian beraien lekua aurkitzea nahi dugu, egunero etorri nahi duten lekua izateko.